

### Miarritzen, 1994ko ekainaren 30a

Haritschelhar, J., euskaltzainburua.  
 Lekuona, J. M., euskaltzainburuordea.  
 Knörr, E., idazkaria.  
 Arana, J. A., diruzaina.  
 Azkarate, M.  
 Charritton, P.  
 Diharce, X.  
 Irigoyen, A.  
 Kintana, X.  
 Oyharçabal, B.  
 Peillen, Tx.  
 Salaburu, P.  
 Villasante, L.

Lizundia, J.L., idazkariordea  
 Zearreta, J.J., ekonomi eragilea

Miarritzen, udalaren Palais des Festivals izenekoan, 1994ko ekainaren 30ean, arratsaldeko hiruretan, bildu da Euskaltzaindia, alboan aipatzen diren kideak bertan zirela. Ezin etorria P. Altuna, F. Krutwig, E. Larre, P. Ondarra, J. San Martin, I. Sarasola eta J.M. Satrustegik adierazi dute.

#### Agiria

Maiatzeko agiria onartu da, zenbait zuzenketa egin ondoren.

#### Hitanoa

Aurreko batzarrean azterturiko paradigmak (hots, nor-nori-nork saillekoak) ontzat eman dira, artean oharrik iritsi ez denez.

Maiatzeko bilkuran aurkeztu ziren adizki trinkoez B. Oyharçabalek egin du azalpena, lau puntutan labur daitekeena: 1. Paradigmen erabateko barne-atxikidura ezin dela lortu; 2. Ez dela komeni paradigma zailak proposatzea; 3. Paradigma bozkatzea hobe dela, eta 4. Lehenbiziko silabaz denaz bezainbatean, *nagok* eta antzeko formen alde agertzen dela Euskara Batuko batzordea.

A. Irigoyenek hitz egin du ondoren. Erraztasuna ez dela irizpide esan du eta forma sorberrien aurkako bere iritzia azaldu. X. Kintanaren aburuz, hizkuntza bititiko hartu behar dira formak eta honako eredu hau proposatu du: *nagok / zegok / zeudek*. Hirugarren pertsonarako, bai singularrean eta bai pluralean, bina forma onartzea komeni den eztabaidatu da. X. Kintanak aipatu du aditz trinkoan *doakio* eta *dihokio* erabaki zirela eta era honetara egitea eskatu, hots, *zagok / zegok, zaudek / zeudek* eta antzekoak. Horrela erabaki da aho batez, baina paradigmekin honako bi ohar hauek erantsiko zaizkie: 1. Testu berean, ahoz nahiz izkribuz, ez daitezela nahas bi formak (*-a-* / *-e-*), eta 2. Honetaz ez dira ahozko beste formak baztertzeko. A. Irigoyenek eskatu du agirian agertzea, paradigmekin ados dagoen arren, *niagok* eta parekoak izan daitezkeela horien osagarri.

Bukaera izan da gero eztabaidagai (*nabilk / nabilak / nabilek; nenbilean, nenbilaan*, e.a.). Puntu hau beste batzarre baterako utzi da; nolana ere den, bokaldun bukaerak hobetsi dira, *natork* eta antzekoen aldean.

X. Kintanak proposatu du Euskaltzaindiak gomendatzea irakaskuntzan *ni naiz / hi haiz* saila kontuan har dadila, alokuzioan *hi haiz* formak *ni nauk* badakar ere. Mahai gainean gelditu da gai hau.

**Barne Erregelak**

Aurreko batzarrean banatu *Akademia bilkurak* deritzan atala onartu da aho batez. *Onarpen mailak eta prozedura* izenekoa egun aurkeztu da. Idazkariordeak egin du azalpena. Ohi bezala, oharrak idatziz igorriko dira. Uztaileko osoko batzarrea astebete aurreratuko denez, ordea, hilaren 15ko bidali beharko dira egoitzara.

**Nafarroako Euskararen Foru legearen berriztatzeaz adierazpena**

Aurreko batzarrean erabaki bezala, Euskaltzaindiak adierazpen bat plazaratu du Nafarroako Euskararen Legea zegoen zegoenean utzi dela eta. E. Knörrek egin du labur berak proposaturiko testuaren azalpena. P. Zabaleta mintzatu da ondoren. Euskal Herriko Autonomi Elkartearen laster bozkatuko den arartekogaia euskaraz ez dakiela eta Euskaltzaindiak adierazpenik egingo duenentz galdetu du. Gero Javier Marcotegui Nafarroako Hezkuntza sailburuak Iruñeko irakaskuntza elebidunaz berriki esandakoa aipatu du, hots, ez dela horretarako eraikitze berririk onartuko. Bestalde, Foru Dekretuaren aurka agertu da Zabaleta jauna. Egia omen da Nafarroako ikuspegi orokorra eskaintzen duela, esan du, baina, besteak beste direla, erantzuna zer hizkuntzatan jaso nahi den hautatu behar da aldioro. Batzartu guztien jakingarri, Dekretua irakurri du. Azkenik, probintziakerian erori gabe, Euskal Herri osorako adierazpena egin dadin eskatu du, berak proposaturiko eta euskaltzainen artean banaturiko testua irakurri ondoren.

P. Charrittonek Europako parlamentuak aurten onarturiko Killilea txostenagatik Euskaltzaindiak bere poza agertzea eskatu du, eta paradaz baliatuz adierazpen bakar bat plazaratzea.

J.L. Lizundia idazkariordea mintzatu da hurrena. Arartekoaren Legeak ez du kargu hau euskalduna izan behar duela eskatzen, esan du. Killilez txostena Jagon sailak aztertzea proposatu du. Horrela egitea onetsi da.

J. Haritschelharrek E. Knörren testuari bi paragrafo kentzea proposatu du ondoren, Foru Dekretua eta alderdi politikoen eskuzabaltasunik eza aipatzen zituzenak. E. Knörrek bere testuaren azken lerroetan euskararen aurka esan eta idatzi direnak garbiago salatzea iradoki du. Horrela gelditu da bozketa-gai.

P. Salaburuk P. Zabaletaren testua eta Euskal Herri osoko hizkuntz arazoaz arukez litezkeenak urriko Biltzarren ondoren aztertzea proposatu du. Onartu da.

Euskaltzainburuak banatu du beste testu bat, Iparraldeari datxekona, euskararen ofizialkidetasuna eta Euskaltzaindiaren aitortpen ofiziala eskatuaz. Zenbait aldaketa egin zaizkio testuari bozkatu baino lehen. Berau eta E. Knörrek Nafarroako proposatua bozkatu dira. Hauek ziren prokurazioak: M. Azkaratek P. Altunarena, P. Ondarrarena eta J. M. Satrustegirena zituen; P. Sakaburuk I. Sarasolarena. eta A. Irigoyenek F. Krutwigena.

Iparraldeko adierazpena aho batez onartu da. Nafarroakoari dagokiola, hona emaitza:

Bai	13
Ez	1
Zuri	4

E. Knörrek hala eskaturik, adierazpen hau iragarki ordaindu gisa argitaratuko da Nafarroan inprimatzen diren bi egunkarietan.

#### **Eskuarteoak eta azken ordukoak**

1993ko abenduaren 20an Euskadiko Kutzak Euskaltzaindiari emandako 20 milioiko diru-maileguaren erdia kitatu da sei hilebeteko epean, J.A. Arana diruzainak azaldu duenez. Beste erdia ordaintzeko mailegu-poliza bat sinatu behar da. Aho batez erabaki da hitzarmen berria egiteko ardura J.A. Aranak hartzea, egokien etsiko dituen baldintzekin.

X. Kintanak, Madrileko Kultur Ministerioak antolatzen dituen sorketa laguntzetarako Euskaltzaindiaren ordezkariak, eman du epaiaren berri. Euskarazkoei dagokienez, Patri Urziku (saiakeran), Xabier Mendiguren Elizegi (eleberrigintzan), eta Xabier Olarra eta Koldo Biguri (itzulpenean) izan dira laguntza jaso dutenak.

Jean Haritschelhar,  
euskaltzainburua

Endrike Knörr,  
idazkaria